

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

##### Hezkuntza Zerbitzua

#### **14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2022-2023 ikasturtea**

2022ko azaroaren 18an egindako ohiko bilkuran onetsi zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzea —ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2022-2023 ikasturtea—.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta 45. artikuluko b) puntuan xedatutakoaren ildotik, hau argitaratzen da, denek jakin dezaten:

14. ildoko dirulaguntzak ematea eta ukatzeari onespina ematea – Ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntza, 2022-2023 ikasturtea.

2022ko abuztuaren 8an argitaratu ziren, ALHAOn, ikasteko zailtasunak dituzten haurrentzako laguntzen (14. ildo) deialdi publikoa —2022-2023 ikasturtea— eta berriazko oinarriak, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko uztailaren 22an egindako ohiko bilkuran onetsiak. Deialdiaren laburpena 2022ko abuztuaren 8ko ALHAOn argitaratu zen, eta hortik aurrera hasi zen kontatzen eskabideak aurkezteko epea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza eta laguntzei buruzko ordenantzan xedatutakoa aplikatuz, eta Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko urriaren 1ean egindako bilkuran onetsi zituen 2022rako Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat etorritik, balorazio-organoa bildu da, eta deialdi horretara aurkeztu diren eskabideei dirulaguntza eman edo ukatzeko proposamena egin du.

Kontuan izanik indarrean dagoen gastuen aurrekontuan nahikoa zuzkidura badagoela 2022ko udal aurrekontuko Hezkuntza eta Kultura Sailaren 2319 02 3261 48004 partidan, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarrak eskumenak eskuordetzeko 2020ko otsailaren 24an hartutako erabakia dela medio, erabaki-proposamen hau egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

#### Erabaki-proposamena

1. I. eranskinean zerrendatutako laguntzak onartzea eta ematea, bertan zehazten diren ikastetxeentzat eta ikasle onuradunentzat, 2022-2023 ikasturterako, bakoitzaren adierazten den zenbatekoagatik, guztira 163.658,00 eurokoa da.

2. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa bi ordainketatan ordainduko da: lehenengo ordainketa, 63.433,86 eurokoa, 2022rako udal-aurrekontuko 2319 02 3261 48004 aurrekontu-partidaren kargura izango da; eta bigarrena, 100.224,14 eurokoa, 2023rako udal-aurrekontuaren kargura, baldin eta aurrekontu horretan horretarako kreditu egokia eta nahikoa badago.

3. II. eranskinean ageri diren ikastetxeei eta ikasleei laguntzak ukatzea, deialdian bertan zehazten diren baldintzak betetzen ez dituztelako.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke egintza eman duen organoari, hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; kasu horretan, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik jarri, harik eta egintza berariaz edo ustez ebatzi arte. Jarraian, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da, egintza jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, edozein unetan jarri ahal izango da, berariazko araudiaren arabera administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera. Dena den, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete, nahi badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

Vitoria-Gasteizen, 2022ko azaroaren 18an

*Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria*  
*ESTÍBALIZ CANTO LLORENTE*

## I ERANSKINA: ONARTUTAKO ESKAERAK, EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA ETA BI ORDAINKETEN ZENBATEKOA

IKASTETXEA	Eskera kopurua		Onartutako ikasleak		Talde-saioterako baldien kopurua	LAGUNTZA GUZTIRA	LEHEN ORDAINKETA 2022	BIGARREN ORDAINKETA 2023
	Banak.	Taldeak	Banak.	Guzt.				
CEIP. ABENDANO IKASTOLA HLHI	6	0	6	6	0	2.352,00 €	911,64 €	1.440,36 €
CEIP. ABETXUKO IKASTOLA HLHI	2	0	0	2	1	615,00 €	238,37 €	376,63 €
CEIP. ADURTZA IKASTOLA HLHI	24	9	10	19	4	6.408,00 €	2.483,74 €	3.924,26 €
CEIP. ALDAIALDE HLHI	6	0	5	5	0	1.960,00 €	759,70 €	1.200,30 €
CEIP. ARANBIZARRA IKASTOLA HLHI	22	0	22	22	0	8.624,00 €	3.342,66 €	5.281,34 €
CEIP. ARANTZABELA IKASTOLA HLHI	10	3	3	10	3	3.049,00 €	1.181,79 €	1.867,21 €
CEIPS. ARMENTIA IKASTOLA HLBIHP	8	6	2	8	3	2.629,00 €	1.019,00 €	1.610,00 €
CEIP. P.I. BARRUTIA IKASTOLA HLHI	13	2	11	13	1	4.927,00 €	1.909,71 €	3.017,29 €
CPEIPS. CARMELITAS SAG. CORAZON HLBIHP	4	0	4	4	0	1.568,00 €	607,76 €	960,24 €
CPEIPS. SAGRADO CORAZON HLBIHP	6	6	6	6	6	2.352,00 €	911,64 €	1.440,36 €
CEIP. DIVINO MAESTRO HLHI	9	0	9	9	0	3.528,00 €	1.367,45 €	2.160,55 €
CPEIPS. CALASANZ ESCOLAPIOS HLBIHP	16	10	10	16	3	5.765,00 €	2.234,51 €	3.530,49 €
CEIP. ERREKABARRI HLHI	18	12	12	18	3	6.549,00 €	2.538,39 €	4.010,61 €
CEIP. IBAIONDO IKASTOLA HLHI	12	12	12	12	0	4.704,00 €	1.823,27 €	2.880,73 €
GPI IKASBIDEA IPI	4	1	1	3	1	1.007,00 €	390,31 €	616,69 €
CPEIPS. INMACULADA G. HLBIHP	2	0	2	2	0	784,00 €	303,88 €	480,12 €
CPEIP. JUDIMENDI HLHI	12	0	11	11	0	4.312,00 €	1.671,33 €	2.640,67 €
CEIP. LAKUABIZARRA HLHI	25	0	25	25	0	9.800,00 €	3.798,48 €	6.001,52 €
CEIP. LANDAZURI IKASTOLA HLHI	7	5	5	7	1	2.575,00 €	998,07 €	1.576,93 €
CEIP. LOPEZ DE GUERENU HLHI	6	0	6	6	0	2.352,00 €	911,64 €	1.440,36 €
CEIP. LUIS DORAO HLHI	13	12	12	12	0	4.704,00 €	1.823,27 €	2.880,73 €
CEIP. LUIS ELEJALDE HLHI	7	0	7	7	0	2.744,00 €	1.063,57 €	1.680,43 €
CEIP. MARITURRI HLHI	13	0	11	11	0	4.312,00 €	1.671,33 €	2.640,67 €
CPEIPS. NTRA. SRA. DE LAS MERCEDES HLBIHP	10	10	10	10	0	3.920,00 €	1.519,39 €	2.400,61 €
CEIP. MIGUEL DE CERVAANTES HLHI	18	16	16	16	0	6.272,00 €	2.431,03 €	3.840,97 €
CPEIP. NCLIC HLBIHP (FUNDACION ARENALES)	4	0	3	3	0	1.176,00 €	455,82 €	720,18 €
CPEIPS. NIÑO JESUS HLBIHP (FUND. VEDRUNA)	17	17	17	17	0	6.664,00 €	2.582,97 €	4.081,03 €
CEIP. ODON APRAIZ HLHI	17	0	17	17	0	6.664,00 €	2.582,97 €	4.081,03 €
CEIP. PADRE ORBISO HLHI	20	18	18	18	0	7.056,00 €	2.734,91 €	4.321,09 €
CEIP. SALBURUA HLHI	5	2	2	4	1	1.399,00 €	542,25 €	856,75 €
GPI. SAMANIEGO IPI	23	20	20	20	0	7.840,00 €	3.038,78 €	4.801,22 €
CEIP. SAN IGNACIO HLHI	13	11	11	11	0	4.312,00 €	1.671,33 €	2.640,67 €
CEIP. SAN MARTIN HLHI	27	8	8	26	7	7.553,00 €	2.927,54 €	4.625,46 €
CEIP. SANTA MARIA DE VITORIA HLHI	5	5	5	5	0	1.960,00 €	759,70 €	1.200,30 €
GPI. SANSOMENDI IPI	11	9	9	11	1	4.143,00 €	1.605,83 €	2.537,17 €
CEIP. TOKIEDER IKASTOLA HLHI	10	8	8	10	1	3.751,00 €	1.453,89 €	2.297,11 €
CEIP. UMANDI IKASTOLA HLHI	12	11	11	11	0	4.312,00 €	1.671,33 €	2.640,67 €
CPEIPS. URKIDE HLBIHP	5	5	5	5	0	1.960,00 €	759,70 €	1.200,30 €
CEIP. ZABALGANA HLHI	18	18	18	18	0	7.056,00 €	2.734,91 €	4.321,09 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>460</b>	<b>66</b>	<b>370</b>	<b>436</b>	<b>30</b>	<b>163.658,00 €</b>	<b>63.433,86 €</b>	<b>100.224,14 €</b>

## II ERANSKINA: ONARTU GABEKO ESKAERAK

IKASTETXEA	ONARTU EZ DIREN ESKAEREN KOPURUA	Oinarrietan jasotzen ez den DLHko maila bat egiteagatik	Laguntzaren xede diren bi ikasturteko kopurua gainditzeagatik	2021-2022 ikasturtean Eusko Jauriaritzaren bekarik ez izateagatik	2021-2022 ikasturtean laguntza jaso duten saioetara ez joateagatik edo uko egiteagatik
CEIP ALDAIALDE HLHI	1	1			
CEIP LUIS DORAO HLHI	1		1		
CPI IKASBIDEA IPI	1		1		
CEIP JUDIMENDI HLHI	1				1
CPI SAMANIEGO IPI	3			3	
CEIP SAN IGNACIO HLHI	2		1		1
CEIP SAN MARTIN HLHI	1	1			
CEIP ADURTZA IKASTOLA HLHI	5			5	
CEIP MIGUEL DE CERVANTES HLHI	2		2		
CEIP MARITURRI HLHI	2		2		
CPEIP NCLIC HLHIP (FUND.ARENALES)	1		1		
CEIP PADRE ORBISO HLHI	2			2	
CEIP SALBURUA HLHI	1			1	
CEIP UMANDI IKASTOLA HLHI	1		1		
<b>GUZTIRA</b>	<b>24</b>	<b>2</b>	<b>9</b>	<b>11</b>	<b>2</b>